

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

HLBGZ zerga kudeatzeko, likidatzeko eta haren dirubilketa egiteko lankidetzaren hitzarmena

2019ko abenduaren 20an, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga kudeatzeko, likidatzeko eta diru bilketa egiteko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten Amurrioko Udalak eta Amurrioko Jabetza Erregistroko erregistratzaile titularrak. Hauxe da lankidetzaren hitzarmenaren edukia:

Amurrioko Udalak eta Amurrioko Jabetza Erregistroko erregistratzaile titularrak hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga kudeatzeko, likidatzeko eta zerga bilketa egiteko sinatutako lankidetzaren hitzarmena

Alde batetik, Amurrioko Udaleko alkatea, Miren Josune Irabien Marigorta, hitzarmen hau sinatzeko eskumenak dituen udalbatzak 2019ko ekainaren 15ean hartutako erabakiaren arabera.

Beste alde batetik, Amurrioko Jabetza Erregistroko erregistratzaile titularra,

ADIERAZTEN DUTE

I. Hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga hautazko zerga da, udalarena, bat etorritik Tokiko Ogasunak arautzen dituen Lege Arautzailearen Testu Bategina onesten duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintza Errege Dekretuaren 59.2. artikuluan xedatutakoarekin. Amurrioko Udalak, aurretiaz adierazitako legeriaren arabera, 2017ko irailaren 28an udalbatzak hartutako erabakiaren bidez ezarri eta onetsi zuen horri buruzko ordenantza fiskala, eta 2017ko abenduaren 1eko 138. ALHAOn dago argitaratuta.

II. Bat etorritik Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1ko 40/2015 Legearen 11. eta 47. artikuluekin, Zergei buruzko 2003ko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 5.5. artikuluekin eta Tokiko Ogasunak arautzen dituen Lege Arautzailearen Testu Bategina onesten duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintza Errege Dekretuaren 8.4. artikuluekin, alderdiek berariaz adierazi dute lankidetzaren hitzarmena ezarri nahi dutela udalerritan hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga kudeatzeko, likidatzeko eta diru bilketa egiteko, eta ondorio horietarako hauxe:

ERABAKITZEN DUTE

Lehenengoa. Aplikazio eremua

Amurrioko Udalaren eta Amurrioko Jabetza Erregistroko erregistratzaile titularren arteko lankidetzaren hitzarmen honetatik eratorritako jarduketak hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren eremuan gauzatuko dira, baldin sortutako zerga egitateak udalaren eskumenekoak baldin badira.

Bigarrena. Gauzatu beharreko jarduketak

Amurrioko Jabetza Erregistroko erregistratzaile titularrak zerga kudeatzeko gauzatu beharreko jarduketan bidez ez dira inolaz ere eskumenak eskuordetuko, eta hala, jarduketak horiek aurkezten diren aitortzei, likidazioei edo autolikidazioei buruzkoak eta sortutako zerga egitatei buruzkoak izango dira, hitzarmen hau indarrean jartzen denetik aurrera preskribatuak ez daudenei lotutakoak izango direlarik, hain zuzen ere. Era berean, eta udalak hala eskatuta, sinatzen diren unean kudeatzeko dauden aitortzei, likidazioei eta autolikidazioei buruzkoak ere izan daitezke Amurrioko Jabetza Erregistroko erregistratzaile titularrak gauzatuko dituen jarduketak.

I. Amurrioko Jabetza Erregistroko erregistratzaile titularrak honako zereginak gauzatuko ditu:

- Aitorpenak eta autolikidazioak jasotzea eta egiaztatzea, baita zergapetzea eragiten duten ekimenak edo kontratuak jasota dauden dokumentuak ere.
- Ofizioz zerga egiaztatzea, subjektu pasiboek modu boluntarioan aitorpenak edo autolikidazioak aurkezten ez dituzten baina, hala ere, zerga atxikita duten eta Amurrioko Jabetza Erregistroan haien berri emandako inguruabar guztietan.
- Zergadunek autolikidazio bidez egindako diru sarrerak biltzea eta likidazioetatik eratorritako diru sarrerak ere jasotzea, bai autolikidazioa berrikustearen ondoriozkoak, bai zerga ofizioz egiaztatzearen ondoriozkoak.
- Aurreko puntuan adierazitako kopuruak Amurrioko Udalak ezarriko duen mugatutako kontu korrontean sartzeko eta kontu horretako saldoa hilabetean behin udaleko diru kutxan sartzeko; hain zuzen ere, hitzarmen honekin bat eginez zehaztuko den kontuan.
- Zorra zehazteko beharrezko zerga kudeaketa jarduketa guztiak egitea. (Dokumentazio osagarria eskatzea, likidazio proposamenak eta entzunaldi izapidetzeak, alegazioak ebaztea, behin-behineko likidazioak, etete, atzeratze edo zatikatze eskariak, berraztertze errekursoak ebaztea, oker egindako diru-sarrerak itzultzea, likidazioa ezeztatze proposamenak, eta abar).
- Aurreko puntuan adierazitako zerga jarduketa guztiak jakinaraztea eta udalera bidaltzea, udalak, hala badagokio, dagokion legezko abisua argitaratzeko.
- Zerga lotura eta preskripzio eza zehaztea eta zerga arautzen duten ezarri beharrezko arauen arabera hobariak, kenkariak edo salbuespenak aplikatzea.
- Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 62. artikulua arabera, modu boluntarioan ordaintzeko ezarritako epeen barne ordaindu gabeko likidazioen berri ematea, horiek prozedura exekutibora bidaltzeko.
- Zerga kudeatetik eratorritako zerga dokumentazioa jasotzea eta berrikusteko eskumenak dituzten organoetara bidaltzea.

II. Amurrioko Jabetza Erregistroko erregistratzaile titularrak aurretik adierazitako kudeaketa jarduketa guztiak modu materialean kudeatu beharko ditu. Jarduketa horiek gauzatzeko eskumen juridikoa Amurrioko Udalarena da, eta udalak horretarako gauzatu beharrezko ekimen juridikoak xedatu beharko ditu modu telematikoan. Hala, eskumenak dituen udaleko organoak Erregistratzaileen Elkargoak emandako sinadura elektronikoko bidez gauzatu dituzten ekimen juridiko horiek.

III. Egunero autolikidazioen aurkezpenari buruzko liburu bat eta likidazio osagarriei buruzko liburu bat idatziko dira, eta haietan jasoko dira aurkeztutako autolikidazioak berrikustearen ondorioz sortutako likidazioak eta zerga ofizioz egiaztatzearen ondorioz sortutakoak. Alkateari, udaleko kontu-hartzaileari eta udaleko diruzainari liburu horien edukiaren berri emango zaie.

IV. Hiru hilean behin Amurrioko Jabetza Erregistroko erregistratzaile titularrak aldi horretan gauzatu beharrezko zerga kudeaketa, likidazio eta bilketei buruzko azalpen txostena gauzatu du. Txosten hori hiru hilekoa bukatu eta hurrengo hogeitun eguneko epean Amurrioko Udalak adierazitako helbide elektronikora bidaliko da.

V. Amurrioko Jabetza Erregistroko erregistratzaile titularrak modu autonomoan antolatuko ditu zerbitzua ematean kudeaketa eraginkorra bermatzeko beharrezkoak diren bitarteko materialak eta giza baliabideak, eta hori guztia erregistro bulegoaren barne, hortik banatuta edo horri atxikita gauzatu ahal izango du.

VI. Alderdiek datu pertsonalak babesteko alorrean indarrean dagoen araudia ezagutzen, betetzen eta onartzen dutela berriaz adierazi dute, eta hala, hitzarmen hau gauzatzeko erabili ahal izango dituzten datu pertsonalak behar bezala tratatuko dituztela adierazi dute.

Horretarako, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta bere garapen araudian aurreikusitakoa beteko da, baita hitzarmena sinatzean edo hitzarmenaren indarraldian zehar indarrean dauden edo egon daitezkeen datuen babesari buruzko xedapenak ere.

Alderdi guztiek onartu dute hitzarmen honetatik eratorritako datu pertsonal guztiak beren titulartasuneko fitxategietan sartu ahal izango dituztela, eta horren helburu bakarra datuok zuzentasunez kudeatzea izango da. Era berean, alderdiek ez dizkiete datuok hirugarrenei jakinaraziko, legez ezarritako inguruabarretan izan ezik.

Sarbide, zuzentze, ezeztatze eta aurkaratze eskubideak egikaritzeko legez ezarritako terminoak bete beharko dira, eta horretarako dagokion erakundearen helbide sozialera jakinarazpena bidali beharko da.

VII. Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, erregistroaren kargu hartzen duten ondorengo titularrek hitzarmenean xedatutakoa bete beharko dute, betiere elkargoaren oniritzia izanez gero, eta horretarako, Bulego Likidatzaileen Koordinazio Zerbitzura bidaliko da.

Hirugarrena. Dirubilketa araubidea

1. Hileroko dirubilketa hilabete bakoitzeko hilaren 24an itxiko da, abenduan ez ezik, hilaren 31n itxiko baita.

2. Dirubilketa aldia itxi eta hurrengo bost egunetan zehar Amurrioko Udalak zehazten duen kontura bidaliko da dirubilketarako mugatutako kontuan dagoen zenbateko guztia. Saldo horrek bat egingo du itxiera egunera arte eraginkorra izan den hilabeteko dirubilketarekin, eta kopuru horri kendu egingo zaio aurreko hilabetean emandako zerbitzuengatikiko likidazio hobariari dagokion gehigarria.

3. Amurrioko Jabetza Erregistroko erregistratzaile titularrak hileroko faktura elektronikoko bat bidaliko du dirubilketa kontzeptuan, eta lankidetzatza hitzarmen honekin bat eginez gauzatutako zereginak direla-eta; hori guztia aldi bakoitza itxi eta hurrengo hiru egunetan.

Faktura elektronikoak Facturae 3.2. bertsioan gauzatu beharko dira, eta sinadura elektronikoak XMLAdvanced Electronic Signatures (XAeS EPES) zehaztapena bete beharko du.

Fakturak Amurrioko Udalaren faktura elektronikoaren Sarrera Puntu Nagusian aurkeztu beharko dira, honako aukerak egongo direlarik:

Amurrioko Udalaren webgunea (<http://www.amurrio.org>), Udala, izapidetzeak, E-faktura, (herritarren atarira bideratuko da), enpresak erlaitza, hornitzailearen ataria, fakturazio elektronikoa: https://udaleneigoitza.araba.eus/portal/literal.do?opc_id=10033&pes_cod=-3&ent_id=4&i-dioma=1

SPN-rako sarbidea, Arabako Foru Aldundiaren Faktura Elektronikoaren Sarrera Puntu Orokorren bitartez:

http://www.araba.eus/cs/Satellite?c=Page&cid=1224013284622&idenlace=1224013298715&language=es_ES&pagename=DiputacionAlava%2FPage%2FDPA_paginaPestanas&title=Factura+Electr%C3%B3nica

WsdI izeneko online zerbitzua hemen dago eskuragarri:

<https://www.araba.eus/FacturaeProv/FacturaeProvService>

Ef4ktur programaren bitartez. Ekimen hori EAEko foru aldundiek gauzatutakoa da, eta horren bitartez faktura elektronikoak dohain egin daitezke. Esteka honetan dago eskuragarri: <https://www.ef4ktur.com>

Fakturetan honako DIR3 datu hauek jaso beharko dira:

| | | |
|-----------------------|-----------|-----------------|
| Kontabilitate bulegoa | L01010029 | Amurrioko Udala |
| Organo kudeatzailea | L01010029 | Amurrioko Udala |
| Unitate izapidegilea | L01010029 | Amurrioko Udala |

Fakturrek araubidez ezarritako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

4. Amurrioko Jabetza Erregistroko erregistratzaile titularrak dirubilketa kontzeptuan jasoko dituen zenbatekoak aldi boluntarioan jasotako kopuruaren ehuneko 10ekoak izango dira.

5. Era berean, erregistratzaileak hitzarmen honekin bat eginez gauzatutako lanaren kobrantza sari gisa, modu boluntarioan egindako eta aldi exekutiboan bildutako likidazioen ehuneko 10eko kopurua jasoko du.

6. Amurrioko Udalaren kargura egingo dira Bigarrena.I. puntuan zehaztutako zerga jarduketan jakinarazpen kostuak, baita, hala badagokio, dagokion legezko abisua argitaratzeko gastuak ere.

Aurreko zenbatekoei emandako zerbitzuengatiko BEZa gehituko zaie, eta dagokion udalak ordainduko du kopuru hori.

Laugarrena. Indarrean jartzea

Lankidetzaren hitzarmen hau sinatzen den egunetik aurrera eraginkorra izango da eta lau urtez egongo da indarrean. Aldi hori bukatutakoan, isilbidez luzatuko da, salbuetsiz alderdietako batek kontratua iraungi baino hiru hilabete lehenago berariazko salaketa egin izana.

Hitzarmena bukatzen baldin bada, eta udalaren kudeaketak jarraitzea errazteko, Erregistratzaileen Elkargoak sei hilabete epean atari informatiko bat eskuragarri jarriko du, eta horren bidez, udalak espedienteen egoerari eta horiei lotutako dokumentuei buruzko informazioa jaso ahal izango du, eta horretarako ez da beharrezkoa izango horiei buruz paperezko formatuan informazioa egotea. Era berean, interesa dutenek, sinadura elektronikoko bidez egindako jakinarazpenei buruzko kontsultak gauzatu ahal izango dituzte.

Hitzarmena bukatzen denean, Amurrioko Jabetza Erregistroko erregistratzaile titularrak hurrengo sei hilabeteetan eraginkortasunez bildutako zenbatekoei dagokien ordainsaria jasoko du.

Amurrio, 2020ko urtarrilaren 8a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA